

Kronika.net

Argazkiak

Elkarrizketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

AURREKO EDIZIOAK

Aukeratu nahi duzun data

2014
urtarrila
8

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



KRONIKA.NET



TXOTX DENBORALDIA

12 sagardotegi aukeran eta ekintza ugari, txotx denboraldiaz gozatzeko

Txotx irekiera igandean izango da, 12:30etan Plazan. Kontrako Eztarria saiokoak izango dira aurrenak tragoa edaten. Sagardogileek azaldu dute, uzta ez dela ona izan Euskal Herrian eta kanpoko sagarra ekarri behar izan dutela. Pozik daude lortutako emaitzarekin.

2014/01/09 - Osteguna

Hastera dijoa txotx denboraldia. Igandean zabalduko dituzte kupelak Hernaniko 12 sagardotegiek. Urtero bezala, irekiera ekitaldia egingo da Gudarien plazan. 12:30etan, aurreneko tragoa egingo dute ETBko Kontrako Eztarria saioko kideek, eta ondoren gerturatzan den guztiak izango du aurtengo sagardoa probatzeko aukera. Egun osoko festa izango da igandean eta apirilera bitarte, hau da, txotx denboraldiak irauten duen bitartean, ekintza ugari izango dira Hernanin: Sagar Lasterra, Tolarea Kofradiaren Kapituluak, Sagar Martxa, turismoa bultzatzeko eskaintza bereziak... Horren guztiaren berri eman zuten atzo prentsaurrean, Txotx Batzordeko kideek.

Autobusetan, Mugi txartela

Luis Intxauspe alkateak azaldu zuen, txotx denboraldia oso garai garrantzitsua dela Hernanirentzat: «Sagardoa ezagutu eta probatzeko garaia da eta jende asko etorriko da. Kanpokoan joan-etorriari erantzutea eta bertakoekin elkarbizitza hori ziurtatzea da gure ardura». Horretarako, zerbitzuak gehituko dituzte: udaltzainen zerbitzua, komun publikoak, kale garbiketa... Autobus zerbitzua ere izango da sagardotegietara joan-etorria egiteko. Gainera, aurtengo Mugi txartelarekin ordaindu ahal izango dira bidaiak.

Gozatu, baina errespetuz

Alberto Blanco Kaxko elkartearen kideak, txotx denboraldiarekin eta bertan antolatutako ekintzekin gozatzera animatu zituen herritarrek, baina errespetuarekin jokatu: «errespetatu bizilagunen lo egiteko eskubidea eta kaleak garbi mantendu».

«Beti bezala, ahalik eta sagardorik onena egiten saiatu gara»

Hernaniko sagardogileen izenean, Jon Peñak hitz egin zuen. 12 sagardotegi desberdin izan arren, ideia batek elkartzen dituela azaldu zuen: «Beti bezala, ahalik eta sagardorik onena egiten saiatu gara denok». Aurtengo sagardoari begira,

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



DIKUSI



Liburua erosteko,
klik hemen



BEHOBIA-DONOSTIA

honakoa azaldu zuen: «Ez da uzta ona izan Euskal Herrian eta kanpotik ekarritako sagarra gehitu dugu. Pozik gaude lortutako emaitzarekin eta seguru gaude gustoko sagardoa izango dela». Probatzeko gonbitea luzatu zuen.

%15eko deskontuak, ostiraletan

Turismoa bultzatzeko, hainbat egitasmo izango dira aurten ere: informazio puntua, bisita gidatuak, pakete turistikoa, esperientzia, tren berdea... Horiez gain, aurten eskaintza berezi bat izango da. Donostialdea eskualdeko hainbat ostatuk eta sagardotegik %15eko deskontua eskainiko dute txotx denboraldiko ostiraletan. Deskontua izateko, sagardotegiko otordua eta ostatuko egonaldia hartu beharko dira. Bi pertsonentzako erreserba egin behar da leku bakoitzean. Hernanin bi sagardotegik eta bi ostatuk hartuko dute parte: Iparragirre, Itxas-buru, Zinkoenea pentsioa eta Pardiola baserria.

Txotx irekiera

11:00, suziriak.

Apaxi ipuin kontalaria, arkupetan.

11:00-11:45, trikitilariak, kaleetan.

12:00, Kalez Kale Kantari, Plaza Berritik Gudarien plazara.
Txalapartariak.

12:30, txotx irekiera, Plazan.

14:30, bazkaria, Larre-gainen.

18:30-20:30, erromeria, P. Berrin.

 Zabaldu!

[Atzera egin](#) | [Inprimatu](#) | [Norbaiti bidali](#)

HERNANIARRAK

GEHIGARRIA: Zaindu zeure burua

Ibilbide Sarea:
Urruzuno

Ibilbide Sarea:
Larregain

Ibilbide Sarea:
Oberan

Ibilbide Sarea:
Usokori bira

Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak



**BESTE
HEDABIDEAK
TOKIKOM**

UKBERRI:

Larrakoetxeko BOE berriak ere kooperatiban salduko dituzte Leioan

NOAUA! ASTEKARIA:

Jon Uriberen sendia:
"Zuei esker une latz hauek samurragoak izaten ari dira"

NOAUA! ASTEKARIA:

Proposatu, Inauteri Festarako mozarroa
